**Espedientea: 1HI-002/16-P08**
**ARRAIA-MAEZTU**
**Laminoriako Harrobietako Plan Berezia.**

TOMÁS ORALLO QUIROGAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN ARABAKO HIRIGINTZA PLANGINTZA ATALEKO IDAZKARIAK.

**ZIURTATZEN DUT** Arabako Hirigintza Plangintzaren Atalak martxoaren 16an izandako 1/2016 Osoko Bilkuran, besteak beste, honako erabaki hauek hartu zituztela, aho batez, kideen gehiengo osoa eratzen zuten bertaratutakoek:

**I.** Aldeko irizpidea ematea Arraia-Maeztu udalerriko “Laminoriako Harrobietako Plan Berezia” espedienteari, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea betetzeari eta honako hauetara egokitzeari dagokionez: Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legearen lurralde-antolamenduko tresnak, eta Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanen gaineko Legea aldatzen duen uztailaren 16ko 5/1993 Legean adierazitako alderdiak.

**II.** Proposatzen den antolamendu xehatua zehazteko espedientea hobetu beharko litzateke:

- Antzinako “Vasco-Navarro” trenbidearen trazadura jasotzea (Laminoria Tunela izan aurreko trazadura adierazita), Araba Erdialdeko LZParen AE-6 gisa.
- Honako hauek jasotzea: arkeologia babesteko eremuen afekzioa duten azalerak; EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LPSeko ur-ibilguak; eta, Hezeguneen LPSak jasotzen dituen egungo meatze-baltsak (EA2. III. Multzoa).
- Eraikigarritasunari dagokion antolamendua osatzea: aurreikusitako eraikigarritasun guztiaren kokagunea(k) - egungoa eta berria-, aurreikusitako eraabilerak, tipologiak.

**Expediente: 1HI-002/16-P08**
**ARRAIA-MAEZTU**
**Plan Especial de las Canteras de Laminoria.**

TOMÁS ORALLO QUIROGA, SECRETARIO DE LA SECCIÓN DE PLANEAMIENTO URBANÍSTICO DE ÁLAVA DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO.

**CERTIFICO** que en la Sesión 1/2016, de la Sección de Planeamiento Urbanístico de Álava celebrada el día 16 de marzo, se adoptó, entre otros, por unanimidad de los asistentes que conformaban la mayoría absoluta de sus miembros, los siguientes acuerdos:

**I.** Informar favorablemente al expediente de “Plan Especial de las Canteras de Laminoria”, del municipio de Arraia-Maeztu, en lo que respecta al cumplimiento de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, a su adecuación a los instrumentos de Ordenación Territorial de la Ley 4/1990 de Ordenación del Territorio del País Vasco y a los aspectos señalados en la Ley 5/1993 de Modificación de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los órganos Forales de sus Territorios Históricos.

**II.** El expediente debiera mejorarse de modo que quede definida la ordenación pormenorizada que se propone:

- Incorporar el trazado del antiguo FFCC Vasco-Navarro (recogiendo el trazado de la preexistencia del Túnel de Laminoria) como AE-6 del PTP de Alava Central.
- Incorporar: las superficies afectadas por zonas de protección arqueológica, los cursos de agua del PTS de Márgenes de Ríos y Arroyos de la CAPV, las balsas mineras existentes recogidas en el PTS de Zonas Húmedas (Grupo III. EA2)
- Completar la ordenación respecto de la edificabilidad: emplazamiento(s) del total de la edificabilidad prevista (actual y

- Eraikuntza eta instalazioetarako sarbideak jasotzea.
- *“Leheneratze planoa”* delakoan bildu ez diren gunea leheneratzeko baldintzak jasotzea.

nueva), usos previstos, tipologías.
- Incorporar los accesos viarios a las edificaciones e instalaciones.
- Incluir las condiciones de restauración de la superficie del ámbito no incluida en el Plano de Restauración.

**III.** Kontuan hartu beharko da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen Bigarren Xedapen Iragankorrak ezarritakoari jarraikiz, plan orokor eta arau subsidiario guztiak egokitu egin beharko direla aipatutako lege horren zehaztapenetara.

**III.** Se deberá tener en cuenta que, en cumplimiento de lo establecido en la Disposición Transitoria Segunda de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, todos los Planes Generales de Ordenación Urbana y Normas Subsidiarias del Planeamiento deberán ser adaptados a las determinaciones de la Ley mencionada.

**IV.** Espediente hau behin betiko onartzeko, eskumena duen organoari honako hauek egindako txostenak bidaltzea: URA- Uraren Euskal Agentzia (I. eranskina); eta, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza (II. eranskina). Ziurtagiri horiek erantsita doaz.”

**IV.** Remitir al órgano competente para la aprobación definitiva del expediente los informes emitidos por URA. Agencia Vasca del Agua (Anexo I) y por la Dirección de Medio Natural y Planificación Ambiental (Anexo II), que se acompañan a la presente certificación.”

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egin eta sinatu dut, bilkuraren akta onetsi baino lehen. Vitoria-Gasteizen, 2016ko martxoaren 16an.

Y para que así conste, expido y firmo, con anterioridad a la aprobación del acta correspondiente a esta Sesión, en Vitoria-Gasteiz, a 16 de marzo de 2016.

IDAZKARIA/EL SECRETARIO

Izpta./Fdo.: Tomás Orallo Quiroga